



MUSIKA

Basahaideen mezua eta habia



ANIMALIA NAIZ ETA HABIA

LAGUNARTE, 2021

XALBA RAMIREZ

Urrer handia da gure iragana. Eta urre handia gure oraina. Nafarroa Beheretik eta Lapurditik datarren soka hirukoteak abantailarekin jokatzeko du, gure iraganaren urrea bizirik mantentzen delako bertako oihainetan, zühainetan, kantarietan.

“Humanitatea bere barnatasun handian hartzeko” sortutako Habiak harien bitartez hari bat egiten du tradizioaren eta molde modernoaren artean. Baina ez, ez autotunearen ezta sintetizagailuen bidez ere. Amaia Hiriartek, Maia Iribarnek eta Elena Hairak, txeloaren, arrabitaren eta biolaren bitartez asmatu dute unibertso berri eta bikaina, Kristof Hiriartek zuzenduta.

So-n sokarekin esperimentatuz, *Les veilleuses*-en ahotsekin. Diskoa, osorik,

bidaia hipnotiko bat da, armonia eta erritmo aberatsaren iturritik edango dugu. Iturri zaharretako ura –jakina den bezala– mugagabea delako, beti berria delako.

Urre Handia kantaren melodiak harapatu nau. Fantasiatzko pelikula batetako galderari basahaideen tonalitate bereziarekin erantzuten die. *Txoriñoa Kaiolan*-en, moldaketa lan finean, pizcicatoan tonu minorraren eta maiorra- ren arteko anbiguetateak irekitzen ditu askatasunaren aukera guztiak: “Zeren, zeren, libertatea zoinen eder den”.

Hain zuzen, ez garelako kontziente zenbat libertate ari garen galtzen gure basoetako doinuen galerarekin batera. Ion Celestinok *Berria*-n esandakoak ekar ditzakegu hona, berdin

du noiz irakurtzen duzun hau: euskal musikaren ezaugarri nagusia ez dela hizkuntza, gehiago duela afinaziotik, erritmotik... eta horrek guztiak zuen askatasunetik.

Aberastasun horri lekua egin behar zaio. Ez folklore gisa –kopia monotono eta erreplikakor gisa–, tradizioaren ikuspegi berritzaile moduan baizik. Km0 izateaz gain, eder, aberats eta mugagabea delako.

Disko batek eduki behar duen (ia) guztia dauka honek. Denboran irauteko eta garaikideak izan ginela harrotasunez esateko moduko lana. Nork eskainiko dion arreta, nork hartuko duen arnasa sakon bertan, hori beste galdera bat da. Bitartean, saia gaitzen denbora galdua berreskuratzen. ●